

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa. Onestea Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundeetan hauteskunde batzordeetako kideek, ordezkariak eta laguntzaileek kobratu beharreko haborokinak**

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeetako buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeari jarraituz, zeinak ezartzen baitu Batzar Nagusietarako hauteskundeetako deialdia diputatu nagusiei dagokiela, diputatu nagusiaren apirilaren 1eko 142/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskunderako deia egiten da.

Hauteskundeetako Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak 13. artikuluko 2. apartatuan ezartzen duenez, hauteskunde batzordeetako eskura jarri behar dira beraien eginkizunak betetzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak. Horrez gain, lege horren beraren 22. artikuluko 2. apartatuak ezartzen du Gobernuak ezarriko dituela Hauteskunde Batzorde Zentralari eta haren zerbitzura daudenei dagozkien dietak eta haborokinak.

Hauteskunde prozesuaren arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuak (1382/2002 Errege Dekretuak emandako idazkeran) hauteskunde batzordeetako kideek eta udalerrietan dituzten laguntzaileek eta ordezkariak kobratu beharreko haborokinei buruzko zenbait gai xedatu zituen. Hala, zenbatespen irizpide ezberdinak ezarri ziren, egun berean hauteskunde prozesu bakar bat edo gehiago egiten den. Halaber, zenbatekoak eguneratzeko formula ere xedatu zen, zeinen arabera gehikuntzak aplikatuko diren herri administrazioen zerbitzura dauden langileen ordainsariei dagokienez Estatuko aurrekontu legeek onartutako gehikuntzen proportzio berean.

Kontuan hartuta udal eta foru hauteskundeak egun berean izateak lan handiagoa eragiten diela hauteskunde administrazioetako kideei, Foru Aldundiak, Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen administrazioa izaki, aurreko hauteskunde prozesuetan erabaki izan du Hauteskundeetako Araubide Orokorren Lege Organikoak agindutakoa analogiaz aplikatzea eta, beraz, hauteskunde batzordeetako kideei eta laguntzaileei Estatuak toki hauteskundeetarako adierazitako ekarpenen ehuneko 50 ordaintzea.

Dena dela, oraingoan hiru hauteskunde prozesu elkartuko dira, baina hiru prozesu funtsezko zereginak baterakoak direnez, egokitzat jo da hauteskunde deialdi honetan hauteskunde administrazioetako pertsonen ordaintzea Estatuko Administrazioak udal hauteskundeak eta Europako hauteskundeak batera direnean ordaintzen duenaren herena, foru hauteskundeak Europakoekin eta udal hauteskundeekin batera izan ziren azken aldiaren apirilaren 27ko 75/1999 Foru Dekretuak arautu zuenaren antzera.

Horren arabera, Foru Gobernuak erabaki du hauteskunde batzordeetako kideei, ordezkariak eta laguntzaileei ordainsariak ematea, zeinek egingo duten Hauteskunde Prozesuaren Arauketa Osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuak 6. artikuluan zehaztutako egotretarako Estatuak ezarritako zenbatekoen herena. Horretarako, oinarri gisa hartuko dira artikuluko horren 4. eta 5. apartatuetan jasotako zenbatekoak, eguneratuko direnak 10. zenbakian aurreikusitako eran.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari esleitutako zenbatekoa ezartzen da laguntzaileei ordaintzeko. Horretarako, gainerako haborokinei aplikatutako eguneratze formula bera erabili da, hau da, herri administrazioen zerbitzura

dauden langileen ordainsariei dagokienez Estatuko aurrekontu legeek onartutako gehikuntzen proportzio berean.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da arautzeko beharra eta, gainera, neurrizko arauketa jarduketa da; izan ere, lortu nahi den helburua erdiesteko gutxienez ezinbestekoak baino ez baitira arautzen; alegia, hauteskunde batzordeetako kideek eta haien laguntzaileek kobratu beharreko haborokinen zenbatekoak zehaztea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak 15. artikuluan xedatzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 3. eta 23. artikuluetan xedatzen duena betetzeko, arau hau eratzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatu da.

Hori dela bide, Arabako diputatu nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

#### Lehenengoa. Hauteskunde batzordeetako kideei ordaindu beharreko haborokinak

1. Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko hauteskunde batzordeko kideei haborokin finko hauek emango dizkie Batzar Nagusietarako 2019rako hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik, Estatuko Administrazioak udal hauteskundeengatik eta Europako hauteskundeengatik emango dizkien osagarri gisa:

	KOP.		GUZTIRA
Lurralde Historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko lehendakaria	1	1.183,50 €	1.183,50 €
Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko idazkaria.	1	1.098,96 €	1.098,96 €
Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko bokal judizialak eta hautesle eroldaren bulegoko ordezkaria	3	507,21 €	1.521,63 €
Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko bokal ez-judizialak	2	270,51 €	541,02 €
			<b>4.345,11 €</b>

2. Arabako Foru Aldundiak Amurrioko eta Gasteizko eskualdeko hauteskunde batzordeetako kideei haborokin finko hauek emango dizkie Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik, Estatuko Administrazioak udal hauteskundeengatik eta Europako hauteskundeengatik emango dizkien osagarri gisa:

	EHB	BATZORDEKO KOP.	ORDAINSARIA KIDE BAKOITZEKO	GUZTIRA
Eskualdeko hauteskunde batzordeetako lehendakaria	1	2	1.183,50 €	2.367,00 €
Eskualdeko hauteskunde batzordeetako idazkaria	1	2	1.098,96 €	2.197,92 €
Eskualdeko hauteskunde batzordeetako bokal judizialak	2	2	507,21 €	2.028,84 €
Eskualdeko hauteskunde batzordeetako bokal ez-judizialak	2	2	304,33 €	1.217,32 €
				<b>7.811,08 €</b>

3. Haborokinak jasotzeko eskubidea kargua hartzean sortuko da, eta hauteskunde batzordeek beraien eginkizunetan diharduten denborari dagokio, eratzen direnetik legezko epea iraungi delako haien agintaldia amaitu arte.

Kideetako batek legezko agintaldia baino aldi laburragoa egiten badu karguan, benetan karguan aritu den denborari dagokion zenbateko proportzionala jasotzeko eskubidea baino ez du izango. Hauteskunde batzordeko kide batek hainbat kargu bete baditu batzorde berean eta kargu horien ordainsariak desberdinak badira, kargu bakoitzean egondako denborari dagokion zati proportzionala jasoko du.

4. Saioetara joateagatik ez da inolako zenbateko osagarririk ordainduko.

#### **Bigarrena. Hauteskunde batzordeetako laguntzaileei ordaindu beharreko haborokinak**

Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskunde prozesuan, lurralde historikoko eta eskualdeko hauteskunde batzordeetako laguntzaileei zenbateko hauek emango zaizkie:

Arabako Lurralde Historikoaren hauteskunde batzordea	1.482,28 €
Amurrioko eskualdeko hauteskunde batzordea (52 mahai)	1.055,08 €
Gasteizko eskualdeko hauteskunde batzordea (373 mahai)	7.568,17 €
	<b>10.105,53 €</b>

#### **Hirugarrena. Udaletako idazkariei ordaindu beharreko haborokinak**

1. Arabako Lurralde Historikoko udal idazkariek, eskualdeko hauteskunde batzordeetako ordezkariak diren aldetik, haborokin finko hauek jasoko dituzte Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik:

	KOP.	ORDAINSARIA, KIDE BAKOITZEKO	GUZTIRA
Gehienez 10 mahai dituzten idazkaritzak	48	304,33 €	14.607,84 €
11 - 50 mahai dituzten idazkaritzak	2	338,14 €	676,28 €
50 mahai baino gehiago dituzten idazkaritzak	1	371,96 €	371,96 €
			<b>15.656,08 €</b>

2. Idazkari gisa aritzen diren udalerrietan zenbat mahai dauden, horren arabera jasoko dituzte aurreko zenbatekoak, alde batera utzita udalerririk taldekatuak edo pilatuak diren idazkaritzaren titularrekiko.

3. Haborokinak jasotzeko eskubidea hauteskunde prozesu osoari dagokio. Karguan denbora laburragoan egonez gero, hartan emandako denborari dagokion zenbateko proportzionala jasotzeko eskubidea izango da.

4. Hauteskunde prozesuan zehar idazkaritzaren titularra beste udal bati atxikitzen bazaio eta udal hori eta jatorrikoa tarte desberdinetakoak badira, lehendik jasotakoarekin dagokion aldea jasoko du, egoki bada.

#### **Laugarrena. Joan-etorri gastuak**

1. Joan-etorrien gastuak ez dira ordainduko, Estatuko Administrazioak ordainduko baititu.

2. Salbuespenez, Batzar Nagusietarako hauteskundearen egintza berezietarako beren-beregi egiten diren joan-etorrien gastuak ordainduko dira. Haien zenbatekoa Eusko Jaurlaritzaren dekretuak, zerbitzuen kalte-ordainei buruzkoak, aurreikusitakoaren arabera ezarriko da. Horretarako, zenbateko esleitua handitu daiteke, aparteko gastu horiek ordaintzeko behar beste.

**Bosgarrena. Ordaindu beharreko zerbitzuak**

Aurreko ataletan ezarritako zenbatekoen bidez prozesuaren garapen arrunta ordainduko da, eta gerta daitezkeen hauteskunde edo bozketa errepikapenak ere bai; hau da, halakorik badago, ez da beste esleipenik egin beharko.

**Seigarrena. Haborokinen ordainketa**

1. Foru dekretu honen xede diren haborokinek hauteskunde batzordeen agintaldia amaitutakoan ordainduko dira.

2. Behin hauteskunde batzordeen agintaldia amaituz gero, foru dekretu honetako lehenengo, bigarren eta hirugarren apartatuetako haborokinek likidatuko dira, hauekin bat etorriz, hurrenez hurren: hauteskunde batzordeen eraketa (ALHAOn argitaratua), hauteskunde batzordeetako idazkariak egindako egiaztagiriak, eta udal idazkariak bidalitako egiaztagiriak, beren alkateen oniritziarekin. Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuaren txostena ere eskatuko da.

3. Aurreikuspenen arabera bidezkoak diren joan-etorrien gastuen likidazioa gastuok justifikatu ondoren egingo da, hauteskunde prozesua amaitu eta gero.

**Zazpigarrena. Aurrekontu esleipena**

Kontzeptu horiek direla-eta likidatu beharreko zenbatekoak 2019rako luzatu den 2018ko aurrekontuaren "Batzar Nagusietarako hauteskundearen gastuak" 02100.0300.2270501 partidaren kontura ordainduko dira, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 8ko 3/2019 Erabakian jasotakoaren arabera. Kopuru horiek egiaztagiriak jaso eta Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendariak ontzat eman ondoren igorriko dira.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria*

**NEKANE ZEBERIO GANZARAIN**